



Kulturak, festak, lanak eta gozoek hartu dituzte, eskualdeko txokoak

Tolosak gozo usaina izan du asteburuan, eta Larramendi auzoko jaiak ere izan dira; Gaztelu eta Berastegi kulturaz jantzi dira, eta Tolosako autokarabanen gunea ere inauguratua izan da 3

tolosaldeko ataria

galtzaundi
GALTZAUNDI

TOLOSALDEKO **hitza** info

Txokorre
Irratia

Asteartea, 2013ko urriaren 29a. 1. urtea. 15. zenbakia. www.ataria.info

Pello Odriozola aske geratzeko aukerak zabaldu dituzte

Ines Del Rioren epaia kasu guztietara aplikatu beharko litzatekeela dio Espainiako Auzitegi Nazionalak; Garikoitz Etxeberria preso lizartzarrak gose greba hasi du 4-5



Azterketan parte hartu du, Berrobiko Iturriza dendak. A. GOIKOETXEA

MERKATARITZA TXIKIAREN EGOERA AZTERTU DUTE

Tolomendi eta Tolosaldea Garatzenek elkarlanean burutu dute ikerketa; 77 saltokiren datuak jaso dituzte 2

Lau t'erdiko ligaxkan ariko da, Ekaitz Saralegi

Titin III.ari erraz irabazi eta gero, lehen aldiz ariko da amezketarra final laurdenetan 7

ESKUALDEKO
REALZALEEK
MANCHESTER
TXIKI UTZI
ZUTEN 7



MERK&TO

RONDILLA, 8 - TOLOSA

Arraindegia
943
506
361

Okindegia
943
506
362

Frutadenda
943
506
363

Harategia
943
506
364

INAUGURAZIOA ETA IREKIERA BIHAR



PRIMERAKO XERRA
kilo bat erosita
ardo* botila bat opari



"Sagardotegi" erako
TXEKOR TXULETA

9,96 €/Kg



Primerako
KLEMENTINA

0,65 €/Kg



Kanarietako
EXTRA PLATANOA

0,99 €/Kg



Bakailao
KOKOTXAK

11,95 €/Kg



GEZATUTAKO BAKAILAO
xerra kilo bat erosita
muskuiilu zaku* bat opari

6,90 €/Kg

* Faustino VII ardo botila. * Gezatutako bakailaoa = Bacalao desalado. 700 gr-ko muskuilu (mejillo) zakua da.

Eskaintza horien baliozgarritasuna izakizkinak amaitu arteko izango da.

Eskualdeko merkataritza txikiari, argazkia

Tolomendik eta Tolosaldea Garatzenek elkarlanean burutu dute ikerketa, eskualdeko dendarien egoera aztertu asmoz

J.MIRANDA - A. GOIKOETXEA

Martxoan hasi eta abuztura bitarte, Tolosaldeako saltokietan dihardute-nei galdeketa egin zaie, eta ikerketa lan horretatik ateratako ondorioak plazaratu dituzte orain Tolomendik eta Tolosaldea Garatzenek.

Tolosak, Amasa-Villabonak eta Ibarrek beraien merkatar-elkartea izanik, ikerketa honetatik kanpo geratu dira. «Herri hauetako elkarteak bertako saltokiak ezagutzeko balio digute, beraz, galdeketatik kanpo utzi ditugu», azaldu du Tolosaldea Garatzeneko Merkataritza Sustatzeko Bulegoko arduraduna den Agustin Adurizek, «Tolosaldea guztian 610 komertzio kontatu ditugu: Tolosan 395 daude kokatuta, hau da, %65a, eta %24a Ibarren eta Amasa-Villabonan banatzen da». Datu hauen arrazoi nabarmenena biztanle kopurua dela adierazi du Adurizek: «Biztanle hauei zerbitzua eman behar zaie eta horregatik dau- de saltoki gehiago horietan».

Honenbestez, eskualdeko herri txikiak dira ikerketa honetan aztertu direnak: «Herri txikietan ere badago komertzioa eta jakin nahi genuen zein egoeratan zegoen. Ostatu eta tabernen inguruko berri gehiago edo gutxiago badugu, baina herri txikietako janari denda, harategi, botika eta bestelakoen berri ez geneu-

kan», azaldu du Tolomendiko teknikaria den Imanol Olanok, «zein egoeratan zeuden aztertu nahi genuen. Kontuan hartuz herriari oso zerbitzu garrantzitsua ematen diotela beraingana joan, lasai beraiekin hitz egin, ikusi zein arazo eta behar dituzten, eta etorkizunari begira zertan lagun geniezaieken beraiekin adostuz».

Erakunde hauen eta merkatarien arteko lotura estutzea ere badu helburu ikerketa lan honek: «Gertutasun hori garrantzizkoa da», azpimarratu du Adurizek.

77 saltokietan

Tolosa, Amasa-Villabona eta Ibarra alde batera utzita, gainerako herrietan 77 saltoki aurkitu dituzte ikerketa burutzeko: horietako 17 Alegian, 15 Zizurkilen, 14 Anoetan, 8 Iruran eta gutxiago Asteasun, Berastegin, Amezketan, Berrobin, Bidegoianen, Lizartzan eta Ikaztegietan.

Egunerokotasunari loturiko dendak dira gehienbat horietan topa daitezkeenak: elikagaiak, nagusiki. Horietatik 52 elikagaiak saltzen dituzten dendak dira (okindegiak, harategiak, fruituarenak,...), 8 botika edo botikin funtzioa betetzen dutenak eta gainerako 17ek bestelako zerbitzuak eskaintzen dituzte.

Elikagaien haritik, fruitu eta berdura dira herri hauetako saltokietan



Berrobiko Iturriza denda da, galdeketak saltokietako bat. A. G.

gehien erosten direnak: «Herritarrek kalitatea baloratzen dute: prezioari ere begiratzen diote, baina kasu hauetan kalitateari ematen diote lehentasuna», azaldu du Olanok.

Herri txiki hauetako saltokien funtzioak ere azaldu dituzte Olanok eta

lapurretaren bat saihestea eragin dezake, eta saltzaileak horrelakoren bat ikusiz gero ere abisua eman dezake», gaineratu du Adurizek.

Egokitzeko beharra

Behin galdeketa burututa, ondorioak atera dituzte azterketa lan horretatik. Horien artean, gazteak erakartzeko gaitasun falta, udalen eta herritarren konpromisoa sendotu beharra eta baserriko produktuen presentzia txikia azpimarratu dituzte.

«Jende gaztea herri txikietan bizi egiten da, baina maiz handik kanpo egiten du lan eta baita erosketak ere», azaldu du Adurizek, «zerbait ahazterakoan jotzen dute herriko saltokira. Egia da adineko asko joaten dela baina herrietako negozioa mantendu nahi bada, gazteek ere gerturatu beharko dute». Hori da erronka nagusienetako bat: «adinekoen atzetik ordezkorik ez gerturatzek, belaunaldi aldaketarik ez

egoteak, denda ixtea dakar. Hor eman dezakegu bultzada garrantzitsua», gaineratu du Olanok.

Garai eta teknologia berrietara egokitzea garrantzitsua izan daiteke gazteak erakartzeko bidean, eta zentzu horretan eskualdeko salto-

“ **Gazteak erakartzeko teknologia berriak erabili behar lituzkete»**

IMANOL OLANO • TOLOMENDI

Adurizek: «Funtzio soziala betetzen dute mota honetako dendek, egunero bezero berberak biltzen direlako, eta han komentatzen dituzte eguneroko kontuak». Bestalde, segurtasun funtzioa ere betetzen dute euren aburuz. «Kalean zerbait arraroa gertatuz gero, hor dago merkataria. Adibidez, argia edo jendea egoteak

“ **Segurtasun funtzioa betetzen dute saltokiek, sozialaz gain»**

AGUSTIN ADURIZ

TOLOSALDEA GARATZEN

kiak atzean geratzen ari direla dirudi. «Ofizioa oso ongi ikasia duen jendea da saltokietakoa, baina duela 10-20 urtetako lan ohiturekin jarraitzen dute. Jende gaztea erakartzeko teknologia berriak erabili beharko lituzkete», azaldu du Olanok, «ez da dendan zaharkitze fisikoa soilik, baita saltzeko moduari loturikoa ere».



Atarian izan dira Imanol Olanok eta Agustin Aduriz, ikerketaren berri ematen. A. G.



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Lan eta ekimen askoko jai egunak

Gozoaren inguruko azokak, herri txikietan kultur asteak eta auzoetako jaiak izan dira asteburu honetan

MIKEL IRAOLA

Ostiraleko jai eguna aprobetxatuz baten batzuk zubia egin zuten bitartean, beste hainbatek lan egitea hautatu edo lan egin behar izan zuten. Esate baterako, ostiralean herri eskolak antolatu zituzten Tolosan, eta Patt Rice lizartzar-irlandarraren hitzaldia entzun zuten.

Gozogileak izan dira asteburuan lan asko izan duten beste protagonistak. Larunbatean, jende andana gerturatu zen Triangulora Tolosa Goxua azokara. Tolosako bost gozogilek 4.000 trufa banatu zituzten. Igandean, berriz, lehen Txokolate Eguna ospatu zuten, eta aitzina batean bezala txokolatea egin zuten.

Auzo eta herri txikietan bai, ordea, festa egunak izan dituzte. Tolosako Olarrain eta Larramendi auzoetako jaiak ospatu dituzte; Gaztelu eta Berastegin kultur astea izan dute; eta Orexan jende mordo bildu zen Hai-zeri laguntza emateko eta Porrotx pailazoarekin arratsalde alai bat pasatzeko. Horien atzean ere lan egun asko izan dira.



Txokolatea izan zen protagonista larunbateko Tolosa Goxua azokan. 4.000 trufa banatu zituzten. Igandean, berriz, Txokolate Eguna ospatu zen lehenengoz.M.I./I. A.



Jende asko bildu zen Orexan Haizeri laguntza emateko prest.M.I.



Orotariko ekimenak izan dituzte Larramendi auzoan lau egunez . I. URKIZU



Berastegiko haurrek bertso emanaldiaz gozatu ahal izan dute aste kulturalean. E. MAIZ



Tamaina handiko kalabazak izan dituzte Gazteluko azoka berezian. I. AGIRRE



Patt Rice lizartzar-irlandarraren hitzaldia izan zuten ostiraleko herri eskolan. A.I.



Txokolatearekin inauguratu dute 48 autokarabane Tolosako San Estebango gunea. E. MAIZ

Ohiko bilkura egingo dute gaur, 19:30ean

TOLOSA. Osoko bilkura egingo dute gaur Tolosako udaletxean. Udalbatza 19:30ean elkartuko da, eta besteak beste, gazte lokalen ordenantzen inguruan hitz egingo dute. Horrez gain, Lehiberriren aldeko mozioa eta epaiketa politikoen ingurukoak eztabaidatu eta bozkatuko dituzte.

Ezohiko bilkura egingo dute bihar, 20:30ean

AMEZKETA. Ezohiko bilkura egingo du Amezketa Udalbatzak bihar, hilak 30. Udal ordezkariak 20:30ean elkartuko dira udaletxeko bilkura aretoan, eta besteak beste, bi mozio hauek eztabaidatu dituzte: Lehiberri Zentroaren aldekoa eta Herrira plataformako atxilotuei buruzkoa.

3-5 urteko haurrentzat ipuin kontaketa, gaur

IBARRA. Ibarako kultur etxean ipuin kontalaria egongo da gaur, 17:30ean. Ines Bengoa ariko da bertaratzen direnei ipuinak kontatzen eta udaletik azaldu dutenez, hiru eta bost urte bitarteko haurrentzat zuzendurik egongo da ekimena. Kamishibai izena du ipuin kontaketa, eta informazio gehiago nahi duenak ondorengo web orrian dauka: www.inesbengoa.com.

‘Internet guztiontzat’ gaiaren harira, bilera

ANOETA. Haririk gabeko komunikazio sarea herrian zabaltzeko bilera informatiboa egingo dute Anoetako udaletxeko bilkura aretoan. Batzarra gaur izango da, 18:30ean. Bertan, telekomunikazio aske, ireki eta neutralaz ariko dira hizketan, *internet guztiontzat* lelopean. *Guifi.net* proiektuaren aurkezpena herritar guztiak gonbidatu dituzte Anoetako Udaletik. Gipuzkoa sharek eta Tolosaldeko Landa garapen agentzia den Tolomendik antolatua izan da hitzaldia.

Garikoitz Etxeberria presoak gose greba mugagabea hasi du

Lizartzarra Sevillako espetxean dago, eta baraualdian beste hamar kiderekin batera jarri da

ASIER IMAZ LIZARTZA

Garikoitz Etxeberria preso lizartzarra gose greba mugagabea dago, atzotik aurrera. Sevilla II espetxean daukate Etxeberria, eta bertako bizi baldintzak salatzeke, eta oinarritzko eskubideen defentsan, baraualdi mugagabea hasi du, beste hamar euskal presorekin batera. Gose grebaren arrazoia beheko gutunean azaldu dituzte, eta herritarrei babe-

sa eta elkartasuna eskatu dizkiete, «guztiok bat eginez lortuko baitugu».

Gose grebaren lehen egunean, atzo, Lizartzan herri batzarra egin zuten. Bertan aurrera begira egin beharreko urratsak zehaztu zituzten, Etxeberriari elkartasuna azaltzeko asmoz.

Frantziako poliziak 2007. urtean atxilotu zuten Garikoitz Etxeberria lizartzarra, Azkainen (Lapurdi). ETAko kidea izatea egotzita, Espainiaratua izan zen lizartzarra. Soto del Real (Madrid), A Lama (Galizia) eta Sevilla II (Andaluzia) espetxeak ezagutu ditu Etxeberriak. Azken honetara 2011. urtean eraman zuten, eta orduz geroztik, isolamendu egoeran daukate bertan.



Lizartzan herri batzarra egin zuten atzo, gose grebaren inguruan. A. IMAZ

Gutuna

GOSE GREBA MUGAGABEAREN ARRAZOIAK ETA HELBURUAK

Borrokaldea hastea erabaki dugularik, honetara bultzatu gaituen egoeraren berri Euskal Herriari helaraztea da idazki honen helburua.

Duela lau urte, espetxe honetara lehen Euskal Presoak ekarri gintuztenetik, beti isolamenduko modulu berezian eduki gaituzte. Ez digute inolako aktibitate eskura jarri eta ondorioz lau orduko patioaldia baino ez dugu egunean, bertara hiru-naka ateratzen gaituztelarik goiz edo arratsalde. Honek, bi egunez behin, ziegan 26 ordu jarraian igaro beharra eragiten digu.

Patiora irteterakoan metal detektagailutik igaro arazteaz gain, ukimenezko miaketa egiten digute gorputz osotik, noiz nahi barrabilak edo zakila igurztera helduz, aldi oro, tentsio uneak sortuz.

Honek eragindako egoerengatik 72. artikulua delakoa ezartzen digute sarri, artikulua honek sortzen duen inpunitate egoerak (kideengandik banatuak, bakartasun osoa, inkomunikazioa...) ondorio larriak ekarri dituelarik askotan. Mehatxu zein irainak, oheari eskuburdinekin lotuta bukatu eta baita jipoi bortitzak eragin ere. Kartzelarien aldetik sorturiko tentsioak eta ezuste egoerak jada bi preso politikoen jipoitzeak eragin ditu. 2010ko Azaroaren 14an lehenengoa, Grapo-ko kide batek pairatutakoa eta 2013ko martxoaren 25ean bigarrena, Arkaitz Bellon Euskal Preso Politikoa pairatutakoa.

Aurrez aurreko bisitetatik bueltan miaketa integralak (osoki biluztera behartuz) egin izan dizkigute. Senideei ere miaketak egin izan dizkiete aurrez aurreko edo lokutorietara sartzeko eta honen ondorioz zenbait bisita galdu ditugu.

Sendagilearen asteroko kontsul-

ta ez zaigu bermatzen. Ezinezkoa zaigu noiz etorriko den jakitea eta ohikoa da 2 edo 3 astez sendagilerik ez agertzea.

Hainbat kidek osasun arazo kronikoak dituztela kontuan hartuta, ezin larriagoa bilakatzen den egoera da hau.

Egunero pairatzen ditugun eskubide urraketa zein gehiegikeria guzti hauek, ezin uler daitezke espetxe honetako Seguritasuneko Zuzendari ordeak gertakari hauek babesteko, elikatzeko eta sustatzeko duen jarrerarik gabe. Gure aurkako probakazioa etengabea bilakatzen da eskubide urraketa guzti hauen bidez. Egoera bideratzeko helburuarekin hainbat aldiz espetxeko Z-rekin bildu izan gara, baina honek ez du sekula adierazitakoa bete, behin eta berriz jan izan duelarik bere hitza. Epaila zein espetxeetako idazkaritza orokorrari bideratutako kexa eta salaketek ere emaitza hutsalak izan dituzte.

Azkenean borrokari ekitea baino ez zaigu geratu. Helburua bizitza duin bat eta osasuna zaintzeko bermea eskuratzea da. Honetarako isolamendu mugagabea amaitzea, kide guztiok batera egotea, gutxieneko eskubideak bermatuak izatea eta gure aurkako erasoaldiak etetea beharrezkoa izango da. Hauek dira gure oinarritzko aldarrikapenak Euskal Preso Politikoen Kolektibo osoarekin batera Euskal Herriratzen ez gaituzten bitartean. Dispersioarekin bukatzea da honelako egoerekin behin betiko amaitzeko modu bakarra.

Borroka honetan gure herriaren babesa eta elkartasuna beharrezkoa izango dugulakoan gure borrokaldiarekin bat egitera deitzen gaituztegu, guztiok bat eginez lortuko baitugu. Beraz bada garaia!

Euskal Preso Politikoa Amnistia bidean Euskal Herrira!

Sevillako Euskal Preso Politikoa

Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanetarako:

Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientzia handiko emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka. Informazio gehiago nahi duenak bi telefono zenbaki ditu eskura, edozein zalanztan argitzeko. Finkoa: 943 69 68 82a da, eta mugikorra, 606 52 19 92a.

mauka berria

Zure zapatak antolatu eta babestu!

KARPE DEAL S.L.
Palacio de la Prensa - Plaza de Callao, 4 - 6.
MADRID 28013 - MADRID
Tel.: 902 091 371

GAURKO ESKAINTZA

Prezioa 13,75€

www.mauka.eu

berria taldea

tolosaldeko ataria

Egin zaitez atarikide!

943-65 56 95 • atarikide@ataria.info

Odriozolaren askatasuna, gertuago

Ines Del Rioren epaia antzeko kasu guztietara aplikatu beharko litzatekeela dio Espainiako Auzitegi Nazionalak

ASIER IMAZ TOLOSA

Juan Manuel Piriz askatzeko autoan, Espainiako Auzitegi Nazionalak argudiatu du Estrasburgoren ebazpenak Ines del Rio preso ohiaren kasutik haragoko eragina duela. Horrela balitz, Pello Odriozolak aske geratu beharko luke.

Urriaren 21ean aditzera eman zuen Europako Giza Eskubideen Auzitegiak Ines del Rioren ebazpena. Espainiako Auzitegi Nazionalak Zigor Aretoa, berriz, ostiralean bildu

zen, Estrasburgok 197/2006 doktrinaren aurkako epaia emanda, hegitea jarrita duten preso kasuekin nola jokatu aztertzeke.

Osoko bilkura horren ostean, Juan Manuel Piriz aske uztea erabaki zuten. Hamahiru epailetik hamabik eman zuten erabaki horren aldeko bozka. Del Rioren inguruko ebazpena, beraren kasutik harago ere aplikatu beharko litzatekeela dio Auzitegi Nazionalak idatzitako autoak.

Europako Giza Eskubideen Auzitegiak, 197/2006 doktrinaren eta

Europako Giza Eskubideen Konbentzioaren arteko «bateraezintasuna» agerian utzi duela dio. Epai hori ez betetzeak «nazioarteko betebeharr juridikoak urratzea» eta «Europatik eta bere zibilizazioko zentzutik aldentzea» eragingo lukeela dio, gainera.

Epai hori gainerako presoetan ere aplikatuko balute, Pello Odriozola tolosarra aske gera daiteke.

Boto partikularra

Epaileen artean boto partikularra eman du Angel Hurtadok. Bere iritziz, Pirizi askatasuna ematea adostu izana onartzen du, baina ez du bat egiten bere osotasunean «askatasun hori emateko erabili diren terminoak eta arrazoibideak».



Pello Odriozolaren askatasuna eskatzeko egindako agerraldia, urtarrean. ATARIA

Garbiñe Biurrun • Epailea

«Ez dakit noiz, baina Pello Odriozola aske utzi beharko dute»

Juan Manuel Pirizen inguruan Espainiako Auzitegi Nazionalak kalera tutako ebazpena argitzeko, Tolosaldeko Ataria-k Garbiñe Biurrun epailearekin hitz egin du, Pello Odriozola tolosarrarengan izan dezakeen eragina jakiteko.

Odriozolaren abokatuak ebazpen honi begira egon beharra zegoela zioen, aurrera begira, epaileen jarriera nolakoa izango den jakiteko. Uste dut jarrera hori oso garbi gertatzen dela iragan ostiraleko ebazpen edo autoan. Magistratuak garbi dio Ines del Rio aske uzteko erabakia epai lotesle baten ondorioz izan zela, eta Estrasburgok ebatzitakoa

Espainiako estatuak bete egin behar zuela. Estrasburgok ez zuen erabat argi uzten egoera berean zeuden pertsonakin zer egin, baina Espainiako Auzitegi Nazionalak horrela interpretatu du, hau da, Estrasburgok diola, egoera berean dauden guztiei aplikatu behar zaie, eta ebazpenak Ines del Rioren kasua gaingitzen duela. Estrasburgok irizpide orokor bat finkatzen duela dio Auzitegi Nazionalak, eta Espainiak giza eskubideak nola eta zergatik urratu dituen dio.

Ostiralean Pirizen kasua aztertu zuten, baina ebazpenean kasu guztiei egiten die erreferentzia.



Garbiñe Biurrun. I. TERRADILLOS

Argitze bat izan dela uste dut. Hori esaten du baina ez dut uste ofizioz aplikatuko dutenik lehen egunetik. Tarteka-tarteka egingo dutela esan zuten, eta ostiraleko geldituko zirela horretarako, kasuak banaka aztertzeko. Hor beste aztarna bat urriaren 24ean ikusi genuen. Bartzelonako auzitegiak bortxatzaile bat kalean utzi zuen, hain zuzen ere, Estrasburgok esandakoa aplikatuz. Beraz, argi zegoen aplikazioak orokorra izan beharko lukeela: guztiz loteslea eta orokorra.

Estatuaren edo gobernuaren alde-tik oztupoak jartzeko aukerarik gelditzen al da?

Ingenieritza juridiko hori azken aldian ez dute aipatu, ez da azken eguneko zerbait. Nire ustez, gobernuak berak ere onartu du erabakiak zeintzuk izango diren, eta zein izango den Estrasburgok eman duen irizpideak sortuko duen egoera be-

rria. Nire ustez, gauzak askoz lasaigo joango dira aurrerantz. Azaroaren 12an Espainiako Auzitegi Gorena bilduko da, baina nire ustez preso guztien kasuan Auzitegi Nazionalak erabaki beharko luke, ofizioz, eta kasu guztiak lehen egunetan aztertuz; banaka-banaka, baina bakoitza aztertzeak ez du denbora askorik eskatzen, beraz, nire ustez, dena egun berean egin beharko litzateke.

Autoa eskuan, esan al daiteke Pello Odriozolari Estrasburgok hartu duen erabakia aplikatuko diotela?

Nik ez dut ezagutzen Pello Odriozolaren kasua zehazki, baina badakit, berari ere Parot doktrina aplikatu zitzaioela. Beraz, hau ikusita, ez dakit noiz gertatuko den, baina aplikatu beharko zaio Estrasburgok orain eman duen doktrina, eta nik uste esan dezakegula, ez dakigu noiz baina aske utzi beharko dutela.

Hamaika
ikusteko, bizitzeko

Independentzia
eskura

Ikusi, bizi eta partekatu

www.hamaika.tv



Kirol taula			
ARETO FUTBOLA		Sailkapena	
BIGARREN B NAZIONAL MAILA		1. Atxurre Berri Bakioko	9p
Bosgarren jardunaldia		2. Scalibur	7p
Ibarra		3. Lakua	7p
ATSEDENA		4. Gora	6p
		5. Eraso Aiara	6p
		6. Lagun Onak Galdakao	6p
Sailkapena		7. Laskorain	4p
1. Sala Quinto	15p	8. Eskoriatza	3p
2. Atenea Ikusnet Labastida	13p	9. Meatzari de Gallarta	3p
3. San Juan	13p	10. Kukuiaiga	3p
4. Colo-colo	13p	11. Saltxaileak	1p
5. Inter Moviestar	12p	12. Debabarrena	0p
6. Debabarrena	11p	Hurrengo jardunaldia	
7. Xota	11p	Gora- Laskorain-	
8. Pinseque	11p	SASKIBALOIA	
9. Zierbana	11p	LEHEN NAZIONAL MAILA	
10. Fuenmayor	7p	(Gizonezkoak)	
11. Ibarra	7p	Bosgarren jardunaldia	
12. Santurtzi	7p	Bide Bide Take-Avia	
13. Siguenza	7p	Zizur 72-54	
14. Arnedo	1p	Sailkapena	
15. Maderas Alto Aragon	0p	1. Bide Bide Take	
Hurrengo jardunaldia		4-1	
Ibarra-Santurtzi		2. Mondragon Unib.	
HIRUGARREN NAZIONAL MAILA		4-1	
Seigarren jardunaldia		3. BLOK zerbitzuak	
Egintza		4-1	
Tolosala Hirukide-Aurrera		4. Universidad Deusto	
Bilbo- Laskorain		4-0	
		5. Leioak Zarautz	
		3-2	
		6. Valle de Egües	
		3-2	
		7. Fundacion 5+11	
		3-2	
Sailkapena		Hurrengo jardunaldia	
1. Laskorain	13p	Univ. Deusto- Bide Bide Take	
2. Aurrera Vitoria	12p	ESKUBALOIA	
3. Sasikoa Durango	12p	LEHEN MAILA, C TALDEA	
4. Egintza	12p	(Gizonezkoak)	
5. Bilbo	11p	Seigarren jardunaldia	
6. Elorrioko	9p	Tolosa-Casablanca	
7. San Jorge Santurtzi	9p	27-27	
8. Mallabia	9p	Sailkapena	
9. Uxo	7p	1. Eibar Eskubaloia	
10. Tolosala Hirukide	6p	12p	
11. Inter Eder	6p	2. Arrasate	
12. Buruntza	6p	10p	
13. Goierri	4p	3. Stadium Casablanca	
14. Zarautz	2p	9p	
15. Soloarte	1p	4. Trapagaran	
Hurrengo jardunaldia		7p	
Egintza- Mallabia		5. Alcorta	
Soloarte- Tolosala Hirukide		7p	
Laskorain- Uxo		6. Tolosa	
		7p	
		7. Corrales	
		6p	
		8. Egia Ur-zaleak	
		6p	
		9. Zaragoza	
		5p	
EUSKAL LIGA		Hurrengo jardunaldia	
Laugarren jardunaldia		Arrasate- Tolosa-	
Laskorain- Lakua		3-3	

#Tolosaldea Txanpions



Inbasioa Manchesterren

Joan den astean Realak Manchesterrera mugitu zituen milaka zaleen artean zen Irati Hartsuaga tolosarra

IRATI HARTSUAGA

Manchesterrera Realak ikustera egini niko bidaiaren kronika idazteko eskatu zidaten. Sarrerak eskuartean eta bidaiak antolatuta, asteartean sartu ginen autobusean, Manchesterrentz, 45 lagun. Aurpegi eza-gun asko, lagunak batzuk, beste batzuk guztiz ezezagunak. Lasarten ere jaso genituen beste dozena erdi bat lagun, haraino iritsia baitzen gure bidaiaren berri.

24 ordu luze aurretik, lehenbiziko lana mus txapelketa antolatzea izan zen. Bikoteak osatu, eta autobuseko mahai bakarrean hasi ziren partidak. Frantzia zeharkatu ahala, ilundu zuenean, literak muntatu eta lotara. Calais-ko tunela igarotzeak piztu zigun jakin-minak bakarrik eten zuen gaueko loa; jakin-minak, eta gau hotzaren erdian, pijama jantzita, karneta erakustera atera beharrak, noski.

Errepidearen ezkerreko errailetik iritsi ginen Manchesterrera, Realaren mota guztietako ereserkiak autobusean jarrita. Lehen realzalea leihotik ikusi genuen, topatuko genuenaren iragarle. Autobusetik jaitzitakoan, tantaka ikusi genituen elastiko txuri-urdinarekin jantzita zebiltzanak, tanta zaparrada bihurtu ziren pixkana, eta uholde, azkenean. Benetako inbasioa zen hura. Tolosarrak nonahi, kale kantoiko musikariak ere, Realeko bufandak soinean eta ikurrina bizkarrean... Bidean ezezagunen batekin talka egindakoan ere, «barkatu» zen entzuten zen lehen hitza, eta ez «excuse me» edo «sorry», espero zitekeen bezala.

Manchesterreko plazarik ezagunenetako batean, Cathedral Gates-en, elkartu gintuzten realzale guztiak. Eskoziar batzuk ere baziren tartean, kamiseta txuri-urdinarekin, «Real Sociedad from the Basque Country» kantari. Tabernara sartu,



Bost kilometroko kalejira egin zuten, Manchesterren, realzaleek.ATARIA

eta Sarri-sarri eta Ikusi mendizaleak bozgorailuetan. Benetako inbasioa arlo guztietan. Zale txuri-urdin bat (Anoetan sarrerak erosteko ilara kudeatu zuena) Old Trafford-era joateko kalejira antolatzen hasi zen, baina kantu batekin eten genuen plazan geunden guztiok. «Guk euskaraz, zuk zergatik ez?». Kasu egin zigun.

Eta orduan, kalejira. Bost kilometroko kalejira. Oinez eraman gintuzten bildu gintuzten tokitik, futbol zelairaino, eta bost kilometrotan isildu ere egin gabe joan ginen, animoz beterik. Berdin, zelaira iritsitakoan; barrura sartu eta isildu gabe jarraitzen genuen kantari,beroketak egiten ari ziren jokalaria animatuz. Partidak ez zituen gure ezarriak itxi, ez gintuen, bigarren minutuan gure atean sartutako golak, mututu. Ez dadila animo faltagatik izan, «Jo ta ke, irabazi arte!». Ez zen nahikoa izan, tamalez. Partida bukatuta ere, kantari jarraitu genuen, horretara joan baikinen, animatzera. Zelaia hustuta ere gu han, isildu gabe. Rea-

leko jokalaria berritara atera ziren aldagelatik zelaira, eskerrak ematera, eta guk are ozenago kantatu genien. United klubekoek ere eskerrak eman zizkiguten bozgorailuetatik, gure jarreragatik: «We will see you in San Sebastian». Hotelera buelta ere kantari egin genuen autobusean, gure ezarri urratuekin eta indar urrituekin. Kantari, nekearen nekez loak hartu gintuen arte.

Gure bidaiak ez zen hor amaitu (mus txapelketa finalerdietan dago), baina bai Realari segika egin dugun zatia. Esperientzia zirraragarria izan da; neure burua forofotzat ez daukadan arren, inork baino ozenago egin nuen garrasi. Hunkigarria izan zen, Old Trafford-eko sarrerako karteletan, *Errealazaleek ongi etorri Old Trafford-era* euskaraz idatzita ikustea. Hiru puntu beltz baino ez: kalejiran gindoazela bertako jarraitzaileek gure artera bota zuten garga-gardo lata, Realak animatzeko kantuen gehiengo gaztelaniaz izatea, eta.... ah, eta emaitza! «We will see you in San Sebastian»...



Sartu gure webgunean
ataria.info

Jarraitu albisteak Twitter bidez
@tolosaldeataria



Tolosaldeko Ataria
orrialdeari eman "atsegin dut"



Lau t'erdiko ligaxkan izango da lehenengoz, Ekaitz Saralegi

22-4ko emaitzarekin jipoia eman zion amezketarrak Titin III.ari ligaxkatik kanpo utziz; Saralegik Idoateren aurka jokatu beharko du hurrengo partida

ITZEA URKIZU AMEZKETA

Ekaitz Saralegik aurrera egin du Lau t'erdiko pilota txapelketan, eta ez, gainera, nolanahi: 1991z geroztik 61 lau t'erdiko jokatu dituen Augusto Ibañez *Titini* sekulako jipoia emanda. Errioxarrak ez zuen arratsalde ona izan igandean, eta nahi zuen moduan ibili zuen Saralegik,

2014an erretiroa hartuko duen Titin.

Pilotari amezketarraren jokoa ez zen harritzekoa izan pilotazaleentzat, izan ere, final-hamaseirenetan oso maila ona eskaini zuen Ekaitz Saralegik, Mikel Urrutikoetxearen aurka. Era berean, Titin beterranoak ere maila jaitsi duela dirudi, udako partidak ikusita.

Modu honetara, eta bi pilotarien bolada on eta txarrak islatzeko, dirua Saralegiren alde atera zen igandean, Adarraga pilotalekuan.

Aurreikuspen eta usteen gainetik, Saralegik triziotarrari emandako jipoia sekulakoa izan zen, eta 4 tanto egiten baino ez zion utzi. Amezketarren tresnarik onena azkartasuna izan zen igandeko norgehiagokan, saketik hasi eta tantoa ahal bezain azkar amaitzen baitzuen. Horrela lortu zuen 0-13ko markagailua ezartzea, partida hasi eta segituan.

Titin, berriz, aurkari gaztearen abiaduraren aurrean, ezinean ibili zen erretoan, eta kantxan mugitze-ko zailtasunak nabari zitzaizkion.

Titinek 1 eta 13koa egindakoan berreskuratu zuen itxaropena, eta sakea aprobetxatu nahi izan zuen. Ez zuen, ordea, inola ere asmatu, eta Ekaitz Saralegik poltsikoratu zuen tantoa berriro, boladarekin jarraitzeko.

Erritmo horri eutsiz, beraz, beste bost tanto egin zituen amezketarrak, eta Titinek tanto bakarrarekin jarraitzen zuen markagailuan. Saralegik akats bakarra egin zuen partida osoan, eta 2-18ko emaitza zutela, falta bat egin zuen Augusto Ibañezek.

Lau tantorekin etxeratu zen, beraz, Augusto Ibañez Titin, eta bere azken lau t'erdikoa triste agurtu

zuen, azaldu zuenez. Saralegi, berriz, oso gustura geratu zen egindako lanarekin.

Idoate, hurrengo aurkaria

Ekaitz Saralegik, 4 eta 22 irabazi eta gero, lau t'erdiko txapelketako hurrengo fasera salto egitea lortu zuen igandeko norgehiagokarekin. Final laurdenetako ligaxkan da, beraz, amezketarra, lehenengoz bere ibilbidean.

Bigarren taldean aritzea egokituta zaio Ekaitz Saralegiri, eta Bengoetxea VI, Arretxe II eta Idoate izango ditu arerio. Horrela, beraz, Mikel Idoate iruindarraren aurka jokatuko du, lehen partida.

Irudia Zizurkil



Danok Danena bikain, errekorrak ezarriz

Bikain ari dira Danok Danena halterofilia taldeko gazteak. Euskadiko 15 eta 17 urte azpiko txapelketan errekorrak ezarri dituzte Susana Davilak eta Goretti Amonarrizek,

eta Lyam Rodriguez ere lehen postuan sailkatu zen bere mailan. Datorren astean Tolledon Errege Kopa jokatuko dute, eta fabritoen artean dago taldea. **ATARIA**

Irudia Tolosa



190 txirrindulari Olarrain auzoan

Olarrain auzoko jaietan Abraham Olanoren omenez antolatzen duten txirrindulari lasterketak 25 urte bete ditu aurtan, eta mende laurdena arrakastaz ospatu dute. Izan

ere, 190 parte hartzaile elkartu zituen probak, igandean, eta tartean, Olanoz gain, Migel Indurain eta Gorka eta Jon Izagirre txirrindulariak izan ziren. **I. AGIRRE**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak


Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SL
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Zuzendaria: Ainhoa Oiarzabal.
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
P.E: ataria@ataria.info **Webgunea:** ataria.info
Papereko editorea: Eneritz Maiz.
Interneteko editorea: Imanol Garcia Landa.

Irratiko editorea: Jon Miranda.
Kudeatzailea: Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818. tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@ataria.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.info

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

• Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarra, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L.-ko kideak:



Ataria-k Bai Euskarari



Gipuzkoako Foru Aldundia

Agenda

DEIALDIAK

ANOETA. Haririk gabeko komunikazio sarea herrian zabaltzeko bilkura informatiboa izango da, gaur, 18:30ean, Anoetako udaletxeko pleno aretoan. Gipuzkoa share eta Tolomendik antolatua izan da. Tele-

komunikazio aske, ireki eta neutrala herritar guztientzat izatea nahi da.

IBARRA. Ibarako kultur etxean ipuin kontalaria egongo da gaur, 17:30ean. Ines Bengoa ariko da bertaritzen direnei ipuinak kontatzen eta udaletik azaldu dutenez, hiru

eta bost urte bitarteko haurrentzat zuzendurik egongo da ekimena. Kamishibai izena du ipuin kontaketa.

TOLOSA. Tolosako Udalak ohiko osoko bilkura egingo du, 19:30ean. Bost puntuko gai ordenean, besteak beste, gazte lokalen gaineko orde-

nantza arautuko dute, eta bi mozio jorratuko dituzte.

ERAKUSKETA

TOLOSA. Felix Ortegaren erakusketak dago ikusgai, Aranburu Jauregian.

Zorion Agurrak



Zorionak Iñigo!

Gaur urteak betetzen dituen Iñigori, bere iloben maitasunarekin eta familia guztiarenarekin, denon partetik, besarkada handi bat, zuri.



Zilarrezko ezteiak!

Muño eta Kontxi. Gaur 25 urte ezkondu zinetela. Zorionak eta ondo pasa, seme-alaba eta familia guztiaren partetik.



Urte askoan Hegoi!

Hegoi Baraibar Goñi (Areso)

Jator-jator jarraitu urte askoan Hegoi, 9 muxu eta besarkada handi bat igandeko partez, Berrobiko aitona-amonak.



AGURRAK

943-65 56 95

ataria@ataria.info



Urte askoan Iñigo!

Iñigo Guridi Lasa (Amasa-Villabona). Besarkada handi bat zure herritik! Maite zaituztegu! Eutsi gogor!